

Garapen Iraunkorrerako Helburuak UPV/EHUren irakaskuntzaren parte bihurtzea (1): sarrera eta lehenengo gogoetak

ECTS kreditu kopurua: 1

Kodea: E02513

Hartzaileak

Garapen Iraunkorrerako Helburuen aldeko heziketa beren ikasgaietan eta/edo titulazioetan sartu nahi duten Graduetako, Masterretako edo ikastegietako irakasleak eta arduradunak.

Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

Garapen iraunkorraren arloko ikaskuntza ezinbestekoa da gainditu behar ditugun arazo nagusietako bi konpontzeko: gizakion arteko harremanetan dauden desberdinkeria eta bidegabekeriak eta gizadiak ingurumenarekin duen harremana.

2015eko irailean, NBEko Batzar Nagusiak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuen, pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza plan bat, era berean, bake unibertsala sendotzea eta justizia eskura izatea bilatzen duena. Agenda horrek 2030erako 17 Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH) eta 169 helmuga biltzen ditu.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU), 2030 Agendak eta GIHei eskatzen duten eraldaketa sortzeko goi mailako hezkuntza erakundeen rola garrantzitsua dela jakinda, 2030 Agenda unibertsitatearen lana planetaren eta pertsonen erronka handiekin 'inor atzean utzi gabe' uztartzeko bide orri bat zela ikusi zuen. Hala, 2019an, EHUagenda 2030 Garapen Iraunkorrari Ekin onartu zuen. Agenda horretan, UPV/EHUk 2030 Agendako 17 helburuetatik 12tan egingo duen ekarpena jasotzen da, baita hizkuntza eta kultura aniztasunarekiko konpromisoa ere, 17+1 GIHaren bidez. Horrez gain, berau osatzen duten plan sektorialak (Berdintasun Campusa, Inklusio Campusa eta Planeta Campusa) eta IKD i³ hezkuntza ereduaren (*ikaskuntza x ikerketa x iraunkortasuna*) berrirakurketa biltzen ditu. Eredu hori ikaskuntza ikerketarekin eta iraunkortasunarekin biderkatzean datza, hau da, termino bakoitza esponentzialki haztean, prozesu eta emaitza berriak ahalbidetzeko.

Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) eta ikerketa unibertsitateko curriculumean sartuz irakaskuntzaren parte bihurtzeko, irakasleak gaitu behar dira, irakasgaien edukia eta irakasteko modua birbidera dezaten, beraien ikasleei iraunkortasunaren arloko gaitasunak irakasteko, azken horiek errealitatea ulertzeko eta esku hartzeko modu berri bat izan dezaten. Horretarako, iraunkortasuna eta garapen iraunkorra kontzeptuak, gaur egun horiek biltzen dituen nazioarteko agenda eta Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza ezagutu eta bere egin behar dituzte. Ikastaro honen bidez, graduako edo graduondoko ikasketetako unibertsitate irakasleei kontzeptu horiek, funtsezko dokumentuak eta 2030 Agenda ezagutarazteko asmoa dago, baita UPV/EHU nola barneratu diren ere, beren ikasgaietan iraunkortasuna barne hartzeko hasierako gogoeta bat abiatu dezaten.

Ikastaroan garatuko diren ikaskuntza emaitzak

1. Iraunkortasunaren kontzeptua bera eraikitzea, garapen iraunkorrari buruzko nazioarteko dokumentu eta ekimen nagusiak kritikoki aztertuz.
2. Nazio Batuen 2030 Agendaren eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) testuingurua eta zertarako onartu ziren ulertzea eta bai unibertsitate esparruan, bai gure ezagutza arloan nola ezar daitekeen aztertzea.
3. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari (GIHe) eta horren ezaugarriei buruzko gaur egungo eztabaidak deskribatzea.
4. UPV/EHUk 2030 Agenda eta GIHa nola barneratu dituen azaltzea; batez ere, bere ikaskuntza-irakaskuntza estrategiari dagokionez.
5. IKD i³ unibertsitate irakaskuntzan sartzeko ekimenak zerrendatzea.

Metodologia

Ikastaroa atariko prestakuntza gisa proposatzen da eta 4 gai multzotan banatuta dago: (1) «garapen iraunkor» eta «iraunkortasun» kontzeptuei buruzko sarrera, (2) gaur egun berau biltzen duen nazioarteko agendaren aurkezpena, hau da, garapen iraunkorrerako 2030 Agendarena, (3) unibertsitate irakaskuntzan ezartzeko aukerak, eta (4) UPV/EHUren irakurketa eta EHUagenda 2030en eta i³KD estratejiaren bidez nola barne hartu duen. Ikastaroaren azken atala UPV/EHUren arlo horretako jardunbide egokien aurkezpena da.

Metodologia teoriko-praktikoa izango da; kontzeptuak ardatz dituen oinarri teorikoa ezarpen adibideekin uztartuko du.

Ikastaro osoa online emango da, eGelapi plataforma birtualaren bitartez. Materialen artean, oinarritzko irakurketak eta irakurketa gomendatuak, lanak eta bideo eta webgune interesgarrietarako estekak egongo dira. Gainera, bideokonferentzia-saio bi izango dira aurkezpena egin eta lehen hausnarketak eta esperientziak partekatzeko.

Edukiak

Lau gai multzo eta aurreikusten dira:

1. **Iraunkortasuna** eta **garapen iraunkorra**. Kontzeptua eta funtsezko ideiak.
2. Nazioarteko dokumentu nagusiak eta gaur egungo agenda "Gure mundua eraldatzea: **Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda**". 17 Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH). 17+1 GIHa 'Hizkuntza eta kultura aniztasuna'
3. **Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza** (GIHe): bilakaera, perspektibak eta printzipioak. GIHen arloko gaitasunak. Iraunkortasuna unibertsitate hezkuntzan sartzeko gakoak.
4. **EHUagenda 2030** por el desarrollo sostenible/ garapen iraunkorrari ekin. **i³KD** irakaskuntza-ikaskuntza eredua. Integrazio kasu praktikoen aurkezpena: i³KD laborategia, Campus Bizia Lab, Gaztenpatia eta Ocean i³, besteak beste.

Lanak

Ikastaroan parte hartzen duten pertsonak gomendatutako oinarritzko irakurketetan eta bideoetan agertzen diren ideiei buruz irakurri, horiek aztertu eta gogoeta egin beharko dute, baita testak gainditu ere, onuraz parte hartzearen ziurtagiria jaso ahal izateko. Testak gainditzeko, 10.0 puntutik 7.0 edo gehiago lortu behar dira.

Horrez gain, **bideokonferentzia-saio bi** proposatzen ditugu:

- **Urtarrilak 10**, 13:00etan: Aurkezpen saioa (30 min)
- **Urtarrilak 30**, 13:00etan: Lehen hausnarketak eta esperientziak partekatzeko saioa (45 min).

Gai multzoa	Ebaluatze tresna	Denbora (h)	Kalifikazioaren %a
1	Aukera anitzeko testa 1	6	25
2	Aukera anitzeko testa 2	6	25
3	Aukera anitzeko testa 3	6	25
4	Aukera anitzeko testa 4	6	25

Datuak

Iraupena: 25 ordu asinkronoak

Online asinkronoa: eGelan emango zaie informazioa matrikulatutako pertsonen

Hizkuntza: Euskara

Noiz: urtarrilaren 9tik otsailaren 13ra arte

Irakasleak: Estibaliz Saez de Camara Oleaga (UPV/EHUko Iraunkortasunaren arloko zuzendaria) eta Nekane Castillo Eguskitza (UPV/EHUko Ingurumen Kudeaketako teknikaria)

Izena emateko epea eta baldintzak

Langileen Ataria erabiliz eman behar da izena. Izena emateko epea prestakuntza eskaintza argitaratu osteko astean egongo da irekita. Matrikulatutako pertsonen eGelapin emango zaie informazioa.

Ikastaro hau 4 astetan egiteko antolatuta dago, baina estimazio huts bat besterik ez da. Partaide bakoitzak komeni zaion erritmoan egin ahal izango du ikastaroa.

Ebaluazioa / Akreditazioa

Ziurtagiria lortzeko, ikastaroko oinarritzko material guztiak aztertu eta test guztiak gainditu behar dira. Testak gainditzeko, 10.0 puntutik gutxienez 7.0 lortu behar dira.

OHARRA: Egiaztapen-ziurtagiriak 2025eko martxoaren 15etik 30era emango dira.